

Etxepare hiritarren aurrera

Etxepare Euskal Institutua hiritarren aurrean aurkezteko AT! ikuskizuna sortu du erakundeak. AT! euskal kultura erakusteko eta promozionatzeko sortu da eta martxoaren 15ean izango da estreinaldia **Billboko Arriaga antzokian, 19:30ean hasita**. AT! Fernando Bernuesek zuzendutako ikuskizun artistikoa da bertan 30 aktore eta 30 idazle inguruk hartuko dute parte. Testuak nahiz musika originalak dira eta emanaldi honetarako sortu dira espresuki, ikuskizunak euskal sortzaile eta artisten erakusleho izan nahi baitu, euskal nortasun eta ikuspegi berriaren erakusle.

Parte hartuko duten idazleak ondoko hauek dira: Uxue Alberdi, Julia Otxoa, Jose Fernandez de la Sota, Karmele Jaio, Lurdes Oñederra, Iban Zaldúa, Luisa Etxenike, Teresa Calo, Bernardo Atxaga, Unai Elorriaga, Eli Tolaretxipi, Miren Agur Meabe, Arantxa Urretabizkaia, Ramiro Pinilla, Rikardo Arregi, Mariasun Landa, Aingeru Epaltza, Itxaro Borda, Anjel Lertxundi, Felipe Juaristi, Arantxa Iturbe, Harkaitz Cano, Kirmen Uribe eta Aurelia Arkotxa.

Ikuskizunean izango diren aktoreak berriz, hauexek dira: Olaia Gil, Itziar Lazkano, Kike Diaz de Rada, Dorleta Urretabizkaia, Pinpix, Joseba Apaolaza, Esther Velasco, Patxo Telleria, Aitor Mazo, Patxi Perez, Vito Rogado, Aitor Beltran, Maite Agirre, Ainhoa Aierbe, Mireia Gabilondo, David Pinilla, Asier Hernandez, Maite Arrese, Mañu Elizondo, Miren Gaztañaga, Galder Perez, Eneko Olasagasti, Maiken Beitia, Itziar Ituño, Ander Lipus eta Naiara Arnedo.

Euskararen Aholku Batzordea lanean

Azken egunotan Euskararen Aholku Batzordeko batzorde-atal bereziak elkartu dira batzorde-atalak eurak osatzeko, bakoitzaren helburuak eta egitekoak definitzeko eta lan metodologia nahiz lan egutegia zehazteko. *Euskara 21* batzordea otsailaren 22an elkartu zen; *Informazio eta Komunikazio teknologiak* batzordea otsailaren 24an; *Toponimiakoa* martxoaren 2an eta *Terminologia*-koa martxoaren 4an.

Bilera horien ondotik, Euskararen Aholku Batzordea Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia berrikusten eta Ekintza Mapa Berriaren diseinua lantzen hasi da. Datozen urteotako Hizkuntza Politikaren oinarriak *Euskara 21* ponentzian adostu baziren ere, Euskararen Aholku Batzordeak erronka berria du aurrean: lan ildo orokor horietatik abiatuta, bideragarriak eta eragingarriak izango diren neurri zehatzez osatutako plangintza orokorra egin behar du. Ekintza Mapa Berriak segida hartuko dio azken 12 urteotan administrazioetan zein gizartean erreferentea izan den Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari.

Euskarazko entziklopedia digitala itzulpen automatikoen sistema garatzen

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren 2011ko bi proiektu giltzarri dira euskarazko entziklopedia digitala eta itzulpen automatikoen sistema eragingarria. Entziklopediak era guztietako erabiltzaileentzat izan nahi du. Hizkuntza Politikarako sailburuorde Lurdes Auzmendiren esanetan, paperezko entziklopedia tradizionalak eta wikiak konbinatzea da helburua: “Euskarazko entziklopedia horrek orokorra izan behar du, baina, zeresanik ez, bertan Euskal Herriari buruzko sarrerek toki berezia izango dute”.

Itzulpen automatikoak garatzea, berriz, “sekulako aurrerapena” izango litzateke Auzmendiren aburuz: “Pentsa dezagun une batez zenbat diru eta lan ordu aurreztuko liratekeen. Tamalez, ez da kontu erraza. Google-ko itzulpen automatikoa, adibidez, ez da oso ona. Badira beste saio batzuk ere, baina oraingoz emaitzak kaxkar samarrak dira”. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza itzulpen-memorien banku publikoa lantzen ari da. Ekimen honen bidez corpus elebidun handi bat osatu nahi da, itzulpen automatikoaren sistemaren oinarria izango dena. Bankua prest dagoenean, nahi duen orok deskargatu ahal izango ditu memoriak Internetetik.